



TXIRRITXOLA

1. ZENBAKIA

1.991. EKO IRAILA BAKIOKO EUSKARA BATZORDEA

Txirritxola

Bai, hauxe da nire izena. baina badakizu zere nazen? Ba, Aita Lino Akesolaren Euskera guztien hiztegian begiratzen badozu, burpiltxu bat nazela ikusiko dozu eta izatez, horixe naz, burpiltxu bat.

Zuen etxietan gurasoei edo aitite eta amamei galdetzen badeutsezue, holango gauzak esango deutsuez nitaz: eiseak aurrekaldean eroaten eban burpiltxua; besteren batek goldeak, soloko makineak, aurrekaldean eroaten ebana; azkenez hurrengo batek, umeek olgetako erabiltzen eben ustai bat nazela esango deutsie, alanbre edo burni-ariz lotuta, berarekin ariniketan, abiadan olgetako erabilten zana.

Ba, apur bat, guzti honek naz ni. Baina nire ezugarririk handiena, jira eta bira ibilterakoan atataren dodan hotsa da. Hots hori barik ez neuke izeneik be izango eta en neuke ezertarako ere balioko. Hots horri esker jakinazoten dot bidean aurkitzen dodanaren barria. Nire ohizko txiiiiiiiiirriari harri kirri bat aurkitu ezkeri diran eta ezdiraneri jakinazoten naz txirritxol, txirritxol, han hor hemenkakoak batuz eta zabalduz gure herrietan biztanle batek baino gehiagok egiten dauenez. Honetariko pertsona barritsueri deitzeko ere erabili izan dabe nire izena.

Ba oraingoan izena eta izana biak alkatzen dira eskutartean dozun aletxo honetan. Zuk holan gura badozu hiru ilabetero-hiru ilabetero agurtuko zaitun aletxo honetan. Baina hemen ez daukat hotsik eta ahalegintxo bat egin beharko dozu nik bizitzen jarraitzea gura badozu hemen dozuzan izkiak batuz, lotuz eta nahastatuz nire txoolen barri izateko.



Bakio, duela urte batzu

Euskara Batzordearen agurra

Kaixo!

Udaletxeko Euskara Batzordea gara.

Orain lau urte Udaletxean batzorde bat zabaldu zen gure herrian euskara bultzatzeko asmoz. Orain arte ekintza puntualak eraman ditu aurrera; Nafarroa Oinez, Herri Urrats bultzatu, eta herrian bertan Euskara Eguna eta ipuin lehiaketa batzuk.

Batzorde honekin aurrera jarraitzeko asmotan gaude eta oraingoan urte osorako programa bat osatzen ahaleginduko gara. Hau dala eta hiruhilabetero aldizkari bat ateratzea pentsatu dugu, herriko talde edo pertsonen berriak herri osoari zabaltzeko.

Interesgarri izango delakoan agurtzen zaituztegu.

Batzordeko partaideak

Udaletxea, Guraso Elkarte, Eskolako irakasleak eta umeak, Abesbatza, Dantza Taldea

Hemen

euskaraz ez dakienak

berak jakingo du

zergaitik ez dakien

Baina hemen

euskaraz ez dakiena

ez digu uzten

euskaraz egiten

Baina eta hemen

euskaraz jakin arren

euskaraz mintzatzen

ez denak ere

ez digu uzten

euskaraz egiten

Bittoriano Gandiaga


Ikasketa Bidaia

Bidaiaren eguna Martxoaren 20a zen. Oso bidai polita egingo genuen. Herrialde batzu ikusiko genituen: Gasteiz, Iruña, Lizarra, Errioxa... Gasteizen oso ondo pasatu genuen, gainera oso ondo tratatu gintuzten. Parlamentoan ere egon ginen eta gauza asko ikasi genituen. Parlamentoan egon ginenean, eskultura bat zegoen ordezkarien aretoan. Nik pentsatzen dut zuek ezagutuko duzuela, baina zer izango zen? Inork ez daki. Harrigarria benetan!

Iratxe albergean egon ginen. Oso ondo tratatu gintuzten han: jateko gozoak, ohe bigunak, ...benetan ondo.

Iruñan ere egon ginen. Iruñera inoiz joan bazarete, jakingo duzue nond auden Taconera eta Ciudadela parkeak. POLITak ezta? Iruña oso polita da, gainera gauza asko ditu ikusteko. Gomendagarria da!

Lizarran ere egon ginen (Estella). Gu, gauean joan ginen eta pena bat izan zen, zeren ez genituen bere gauza bitxiak ikusi. Pena bat! Eta badakizue elurretan ere egon ginela? Hori bai izan zela gauza dibertigarria! Plastikoa hartu eta PLASH!, elurretatik irristatzen ginen. Aaaah! Telesilletan ere ibili ginen. Barrakak baino hobeto eta gainera bizta zuriekin. Aurrera begiratu eta eskiatzen jendea. Apur bat busti ginen baina txokolate beroa hartu eta bero-



Bidaia ikasle batek ikusita

bero. Baina ez pentsatu hemen bukatu dela. Haron ere egon ginen apur batean. Han ere ondo pasa genuen.

Bidaia bukatu zer, zeren Bakiora bueltatu ginen. Bidaia polita benetan: ikastekoa, dibertitzekoa, lekuak ikustekoa... Zer, inbidiarik? Bai, ezta? Bueno ba ez dugu ezer gehiago komntatzerik. Gustatu zaizuelakoan gaude, guri gustatu zaigu eta.

Bakio Kirol Taldea

1989. urtean jaioa, eta urte bitan handik hona ibilia, esan dezakegu Bakio Kirol Taldea badoala finkatzen hain erraza ez den futboleko munduan.

Gizarte maila eta politika ezberdinetako jendeaz bultzatuta sortu zen kirol talde hau Udaletxeak eraiki berri zuen futbol zelaiari erantzun bat ematerakotan.

89-90 jolasturtean Bigarren Regionalean federatu zen Bermeo, Mungia eta Bakioko kirolartiez osatutako ekiporekin. Denboraldi honetan kategoritik igotzea lortu genuen.

90-91 jolasturtean Lehenengo Regionalean jokatzetik kanpo oinarriko futboleko lanean aritzea ipini zen helburutzat.



Honetarako alebinen ekipo bat federatu zen Ligan, hirugarrena gelditurik eta taldeko bigarren Koparako.

91-91 jolasturterako helburuak hauexek dira; ekipo nagusia lehenengo hiru postuetan ezarri, futbol-7ko alebin ekipoa mantendu

eta infantilen ekipo bat federatu.

Guzti hau aurrera eramateko 3.000.000 pezetatako presupuestoaren beharra dugu. Diru hau lortzeko kideen apor tazioa, Udaletxearen subentzioa, Gabonetako zozketa, jaietako txozna, zalaiko taberna, komertzioen laguntza, publizitatea eta gure esponsorra den "Cafés el Abra" k egindako aportazioak ditugu. Beraiek gabe

ezinezkoa izango litzateke proiektu hau mantentzea.

Azkenez, gure agur beroa Bakion sortu den euskarazko aldizkari txiki honi. Era berean, gure desiorik onenak sortu berria den Alaitasuna Pilota Taldeari.

Bakio Kirol Taldea

Alaitasuna , "Zaletasuna izartu gurean"

Halan da gure ustez, bakioko "Alaitasuna" pelota taldearen sorreraren arrazoia.

Aspaldi ikusi izan dugunez, ez da emoten jadanik, gure eskola denboratakopelota-leku betekadak, Akordetan naz... eskolara joan baino lehen, handik urten ta gero, zapatuak, domekak, oporrak... futbolagaz erdi-erdi osatuz izaten ziren gure kirolak. gaur egun ez da holakorik gertatzen, ezta antzik ere.

Herenegun, holantxe berbetan, Patxi karnizeruegaz...

- Akordetan zara... hona frontoie etorritxe, pala zati bat hartuta, norok apu:tutakoa... eta partidue olgeu harezegaz.

- Bai baña, orduen afiziño andije egoten zan, txo, ezke besterik ez gendun etxen, pelota zarra hartu ta, benga kristonak emoten homra kontran.

- Orain, oster, hain eta materiala ona euki, pala zein pelota, bat bestie baiño hobe... frontoiak hutsik.

- Bai, zeozer egin beharko da. Gauzak honela ikusirik eta urrunago joan ez zitezen, Bakioko udaletxea, pelotaka ibiltzen giñenei ziritxoa sartuz, mogitzen hasi giñen. Elkarrizketa hartatik erabaki genbuen pelota "Club" bat sortu beharko zela eta harrezgero pelota munduari dagokion ekimen edo



Pelota zaletasuna gazteengan piztu nahian

iniziatiba guztiak, "Club" horretan errotu beharko zirela.

Behin martxan hasi ta, 1991garrenako proposaturiko ekintzak eta beti goiko helburua lortu gurean, hurrengo hauek liriteke:

1) Ume esku-pelota eskola sortu (jadanik martxan jarrita, igaroen urrian, hain zuzen.

2) Esku-pelota emanaldiak eskaini.

3) Bai negu (gomazko pelota) zein udan (narruzko pelota) egiten diren pala txapelketak antolatu.

4) Umeentzako esku-pelota txapelketak egin.

5) Beste kirolakaz harremanak

Beraz, guzti hau aurrera eramateko gurasoei laguntza eskatuko genizueke, batez ere, umeen partiduetan han egoteko, ikus dezaten egiten dutena interesatzen zaigula, garrantzitsua izanik era berean.

Honez gain, hemendik urte batera, daukaguzan umeak Bizkaiko konpetizioetan - Uribe Kosta, eskolenarteko...- sartzeko asmoa dugu. Horretarako idazki hau aprobetxatu gura degu irakurle zaren horri, bihar edo etzi hau gertatzen denean gure bazkide izateaz lagun gaitzazun.

Alaitasuna Pelota Taldea

***Txakolin, txakolin,
txakolinak on egin.***

Guztiok edaigun elkarrekin.

***Bihotza pozez betetzen da
txurrut bat harturik.***

***Ez dago inon honalko
edaririk.***

Matsaren orpotik dator

Mama goxua, mama goxua.

Edango neukela

***beterik basua. Klink! beterik
basua.***

***Nik zuri, zuk neri,
agur eginaz elkarri,***

basua txit garbi

beharko da ipini.

Bittoriano Gandiaga

Itxas Alde Taldearen Agurra


Kaixo lagunok:

Itxas-Alde dantza taldea gara eta herrian guztiok ezagutzen gaituzuela suposatzen dugu. Gure taldea ehun neska-mutilek osatuta dago, hiru mailatan babatuta, nagusiak, erdikoak eta txikiak. Ahal dugun hobe egiten saiatzen gara guztioen gustokoa izan gaitezen.

Orokorrean, gure dantzen bidez lortu nahi duguna zera da: gure kultura, hau da euskal kultura, bultzatzea.

Igaro den udan, uda guztietan bezala, ekitaldi askotan parte hartu dugu, ezkontzetan, jaietan edo Abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean, Bakioko probalekuan egin genuen erakustaldian. Azken hileotan gure ahalegin guztiak pasa den hilearen 23tik 27ra egin dugun bidaiari jarri ditugu.

Oso bidai ona izan zen, anekdota eta parrandaz gain, zeren eta oso ondo pasa genuen eta era berean Portugaleko



Itxas Alde Taldea

kulturatik zerbait ikasi genuen haien dantzen eta ohituren bidez. Aldi berean, gure kultura ere eman genien gure dantzak erakutsiz.

Hurrengo urterako, bidai honen emaitzak onak ikusita, deitu gaituzte Holandan egun batzuek igaro eta dantzatzeko, oriantik ezer definitiborik ez egon arren, baina

horretaz ari gara iadanik.

Aldizkari honen hurrengo alean Portugalean gertatu zen guztia azalduko dizuegu, argi eta garbi, nahiz eta batzuek horregatik bronka bat jaso ahal.

Agur bero bat.

Itsas-Alde

DENBORAPASAK:

Hondartzan dauden 8 gauza bilatu:

A	N	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	Ñ	O	P	
R	A	E	B	C	D	E	F	G	P	O	H	I	J	K	M	Q	R	Q
S	T	U	S	Y	X	Z	L	K	R	T	L	N	W	X	K	Z	B	R
B	O	F	G	K	E	M	Ñ	P	O	H	K	A	C	L	A	Y	A	S
C	H	O	N	D	A	R	R	A	U	Z	P	Q	T	B	L	O	V	T
H	B	W	X	V	U	K	Y	N	P	M	L	A	D	U	L	I	G	U
J	J	O	F	R	E	D	U	K	O	A	F	I	N	L	A	X	P	V
K	A	R	R	A	I	N	A	K	I	E	Q	V	P	U	O	K	Z	W
U	H	L	O	T	S	T	I	J	H	G	N	C	S	H	T	A	O	X
I	O	A	T	H	S	C	N	J	H	U	I	T	G	S	O	L	T	Y
A	Q	R	B	I	Z	K	X	W	N	Z	L	R	Y	T	K	S	U	Z
P	P	O	F	Ñ	M	L	J	K	I	K	H	F	G	E	B	D	A	U
K	Q	R	S	T	V	I	Ñ	G	B	I	K	I	N	I	A	K	O	B
R	U	O	B	I	T	O	S	T	X	A	Y	X	R	H	U	N	A	E
S	K	R	I	T	R	P	A	I	N	E	I	R	O	M	I	Ñ	O	U